






OTEROS



HIEDRA

HUNTZA

Hedera helix



OTEROS 1.042 M.

SITUACIÓN

La sierra de Badaya es una altiplanicie de 50 Km², de unos 8 km. de largo por 3 km. de ancho en su parte cimera en dirección norte-sur. Sus límites lo conforman el valle de Zuya al norte, el valle de Iruña de Oca por el sur, la Llanada al este y el valle de Cuartango por el oeste. Ganalto 900m. en el extremo norte y Oteros 1.042 m. en el extremo sur son sus principales cimas.

ACCESOS

A Oteros podemos subir de todos los pueblos colindantes. Desde Montequite en hora y diez minutos. Más largo es el camino desde Ollabarre y Nanclares, de donde parten caminos distintos que confluyen en el término de Santorcariz. Desde este punto a la cima tenemos unos 30 minutos. Desde Zuazo de Cuartango 594 m. arranca el itinerario más aéreo y montañoso. Desde el último caserío al pie de la iglesia parte un camino que más tarde se bifurca. Continuaremos por el ramal de la derecha a través de un bosque de pino silvestre hacia un repetidor. Llegados al mismo el camino continúa monte arriba, ofreciéndonos de forma permanente vistas del valle. Se llega a la fuente de Azkarate donde se cierra la pista y se remonta por un sendero a la parte alta de la sierra a través del portillo de Azkarate. Ya se divisa el vértice geodésico que se erige junto al buzón de la cumbre, donde llegaremos quince minutos más tarde. Invertiremos hora y cuarto en el recorrido.

SIMAS Y CUEVAS

En Badaya hay localizadas cerca de un centenar de cavidades producidas por la erosión karstica. Simas como las siguientes: la Sima de Liñazabal de 135 m. de profundidad termina en un profundo lago, la sima de Santa Agueda de 2780 m. de recorrido y 100 m. de profundidad, la popular cueva de los Goros (1500 m./60 m.) donde se localizaron diferentes restos arqueológicos. entre ellos un broche de cinturón ricamente decorado. La cueva de Gobaederra, llamada así por la belleza de sus galerías, hoy en día degradada por grafitis de visitantes que nada tienen que ver con espeleólogos, montañeros y otros amantes de la naturaleza, es un importante yacimiento arqueológico. En 1964 se encontraron diferentes tipos de materiales de Bronce Hispánico.

ZUAZO DE CUARTANGO

Destaca la iglesia parroquial de San Pedro provista de nave de dos tramos con bóveda apuntada. La portada se decora con diversos motivos, encestados, dientes de sierra, bolas y cordones típicos del llamado románico cuartangués.

SANTUARIO DE NUESTRA SEÑORA DE ESKOLUMBE.

Se la considera la patrona del valle de Cuartango, muy visitada todo el año, especialmente en las fiestas del último domingo de agosto. Se encuentra a menos de un km. de Catadiano al pie de la peña de su nombre en unas bonitas campas. De origen antiguo, la actual construcción es del 1.541, retablo mayor del s. XVI, del escultor vitoriano Gerónimo de Noguera, con buena talla de la Virgen de Eskolombe del s. XIII.

VEGETACIÓN

Toda la ladera que da hacia la Llanada es del dominio del carrascal "Quercus Ilex" con estrato arbustivo de enebros. Los quejigos son abundantes en las zonas más bajas. Las laderas meridionales están cubiertas por el bosque submediterráneo de encinas "Quercus roduntifolia" que de forma densa cubren los delgados suelos calizos. Es muy abundante el madroño. Las áreas más altas están desarboladas y cubiertas de un brezal pastizal que permite cierto aprovechamiento ganadero.

OTEROS 1.042 M.

KOKAPENA

Badaia mendizerra 50 km. karatuko ordokia da eta 8 km. luze eta 3 km. zabal ditu iparraldetik hegoaldera zabaltzen den gailurrerian. Zuia haranak iparraldetik, Okako Iruñaok hegoalde, Koartangokoak ekialde eta Lautadak mendebalde mugatzen dute. Gailurrik inportanteenak Ganalto 900 m. iparraldeko muturrean eta Oteros 1.042 m. hegoaldekoan dira.

IRISPIDEAK

Oterosea mugakide dituen herri guztietatik igo daiteke. Mondaitatik ordu bete eta hamar minututan igongo gara. Olabarritik eta Langraitetik bidea luzeagoa da eta herri horietatik ateratzen diren bideek bat egiten dute Santorcariz izeneko tokian. Hortik tontorrera ordu erdi bat behar da. Zuhatzu Koartangolik – 594 m – abiatzen den bidea da dudarik gabe mendigoizale kutsu handiena duena eta ikuspeirik zahalenak eskaintzen dituena. Azken baserritik, eliza ondoan dagoenetik, bide bat abiatzen da, hasi eta gutxira bitan banatzen dena: Eskubetik egingo dugu aurrera ler gorri hasoan zehar errepikagailu baterantz. Behin errepikagailu iritsita mendian gora abiatuko gara, harana etenik gabe begibistan izango dugularik. Horrela Azkarate izeneko iturrira iritsiko gara; bertan bidea bideska bihurtu eta izen bereko mendatea zeharkatuz mendizerraren goi aldera helduko gara. Honez gero, tontorreko postontziaren ondoan eraiki duten harri geodesikoa ikusiko dugu eta hamabost bat minutu beharko ditugu bertaratzeko. Guztira ordu eta laurden beharko dugu bidea egiteko.

LEIZEAK ETA KOBAZULOAK

Badaian higadura karstikoaren ondorioz sortutako ehun bat zulo aurkitu dituzte. Ondokoak bezalako leizezuloak, alegia: Liñazabal leizezuloak 135m. sakonera du eta aintzira sakon batean murgiltzen da, Santa Agedakoak 2780 metroko ibilbidea du eta 100 metro sakonera eta hain ezaguna den Goros kobazuloa (1.500m/60m.). Azken honetan hondar arkeologikoak aurkitu zituzten eta euren artean gerriko batentzako krisketa, eder askoa. Gobaederreko kobazuloak bere edertasunari zor dio izena, baina gaur egun erabat hondatuta agertzen da bertan egindako grafitien ondorioz eta egileak, jakina ez dira espeleologoak, mendizaleak, ezta naturazaleak ere. Arkeologi aztarnategi garrantzi handikoa da, bertan 1964. urtean Hispaniar brontzeari dagozkion material ezberdinak aurkitu baitziren.

ZUHATZU KOARTANGO

Aipagarria da bertako San Pedro eliza, puntadun bobedako bi zatidun nabea duena. Portada edertzeko apingami ezberdinak erabiltzen dira: saski antzekoak, zerra-hortzak, bolak eta kordioak; guztiak koartangoko erromanikoa izenarekin ezaguna denaren ezaugarri.

ESKOLUNBEKO AMA MARIAREN SANTUTEGIA

Koartango haraneko zaindaritzat hartzen dute bertakoek eta urte osoan zehar bisita asko jasotzen ditu, batez ere, abuztuko azken igandeko jaietan. Izena ematen dion harkaitzaren oinetan, zelai berde ederretan dago kokatua. Katadianotik bertara ez da kilometro bat egongo. Jatorria zaharragoa badu ere, gaurko eraikuntza 1541. urtekoa da. Erretaula nagusia XVI. mendekoa da eta Geronimo Nogerasko, eskulturgile Gasteiztarrek egin zuen. Bertan Eskolunbeko Ama Mariaren irudi ederra, XIII. mendekoa ikus dezakegu.

LANDARERIA

Lautadari begira dagoen mendi-mazala osoan arte txikia "Quercus Ilex" da nagusi, ipuru zuhaizkak azpian agertzen direlarik. Behe aldeetan ametzak ugartzen dira. Hegoaldeko mazalak baso mediterranearrak estaltzen ditu, arteak "Quercus roduntifolia", hain zuzen ere, baso itxia egiten du eta kareharizko beheak erabat estaltzen ditu. Gurbizta ere oso ugaria da. Goi aldeetan ez dago zuhaitzik eta txilarra eta larra dira nagusi, abereentzako nolabaiteko bazka eskaintzen dutelarik.